



LH-6. MAILA
5. UNITATE DIDAKTIKOA
"Giza Eskubideak nire familian"



LH6-5UD.GIZA ESKUBIDEAK NIRE FAMILIAN: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Unitate honek zuzenean lotzen ditu berdintasunaren printzipioa garatzen duten Giza Eskubideak eta tratu onak. Eta Giza eskubideen garapen eza eta tratu txarrak. Horretarako, Giza Eskubideak, tratu onak eta tratu txarrak egoera berean kokatzen ditu: etxean, bikotearen eta familiaren eguneroko bizitokian.

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETA
<p>1. Giza Eskubideen proiektua familian. Familiaren elkarbizitza berdintasunaren eta Giza Eskubideen ikuspuntutik aztertu. Eguneroko harremanetan, senideen eguneroko jokabideen bitartez, familiak tratu onen ala tratu txarren aldera egiten du. Helburua, zein portaerek daramaten alde batera eta zeintzuk bestera ezagutzea da.</p>	<p>1. Giza Eskubideak-tratu onak. Ikasleek ondo antzeman dute tratu on eta Giza Eskubiderantz daramatzaten portaerak? Eta tratu onak adierazten dituzten familia egoerak? Zalantzaren bat eduki dute? Zein? Zergatik? Neskek zein mutilek berdina identifikatu dituzte? Desberdintasunak egon dira? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ Giza eskubideen eta tratu onen familia. Senideen arteko errespetua eta pertsona bakoitza babesten duen familia, guztien bizitza proiektu pertsonala onartuz eta lagunduz, eta guztiak berdintzatuz.</p> <p>→ Tratu onen familia, zoriotsu bizi den familia, berdintasuna eta giza eskubideak sustatzen dituzten eguneroko portaera eta jokabideen emaitza da.</p>
<p>2. Tratu txarrak garaiz antzeman lehenbailehen aurre egiteko. Arrisku seinaleak identifikatu. Adibidez: gertatzen ari dena ezkutatzea; portaera onartezinak ontzat hartu eta normalizatzea; gizonen hitzei, eskubideei, beharrei eta proiektuei lehentasuna ematea; emakumeak bere familiarik, lanetik eta lagunengandik isolatzea. Hauek guztiak argi gorriak dira, tratu txarrerantz eramaten dituzten urratsak.</p>	<p>2. Argi gorriak, arrisku seinaleak. Ondo antzeman dituzte tratu txarren arriskua duten egoerak? Zalantzaren bat egon da? Neskek zein mutilek egoera berak aukeratu dituzte? Desberdintasunen bat egon da? Zergatik? Zer adierazten du horrek? Hitz egokiak erabiliz osatu dituzte portaeren esaldiak? Zalantzaren bat egon da? Zergatik? Zein iruditu zaie arriskutsuena? Zergatik? Neskek eta mutilek berbera aukeratu dute?</p>	<p>→ Giza eskubiderik gabe ez dago maitasunik, ez dago tratu onik, ez dago zorientasunik, ez etxean, ez familian eta ez beste inon.</p> <p>→ Giza eskubideen urraketei beti eta leku guztietan egin behar zaie kontra. Guztien ardura da, gizartearen eta erakundearen ardura da.</p> <p>→ Arrisku seinaleak ezagutu eta kasu egin. Egoera arriskutsua lehenbailehen antzeman eta senide eta lagun sarearekin aurre egin.</p>
<p>3. Tratu txarrei aurre eta Giza eskubideen alde egiteko irizpideak. Tratu txarrak delitu dira toki guztietan, kalean zein etxean. Emakumeen eta gizonen hitzek, beharrek eta proiektuek balio bera dute. Etxeko Giza Eskubideak pertsona guztien erantzukizuna dira, gizarte guztiaren erantzukizuna.</p>	<p>3. Aurre egiteko irizpideak eta estrategiak. Neskek eta mutilek tratu txarren arriskua gutxitzeko eta giza eskubideen alde egiteko irizpide eta estrategia berberak aukeratu dituzte? Zeintzuk ez? Desberdintasunen bat egon da? Zergatik? Zer adierazten du horrek?</p>	<p>→ Irizpide garbia. Erasotzaileak egin du gaizki. Berak lotsatu egin behar du. Berak du erantzukizuna, portaera aldatu beharra eta zaindu edo kontrolatu beharra.</p>

→ Familiaren eguneroko bizimoduan Giza Eskubideak eta tratu onak gauzatu.